











begirada

83

otsaila
2022



ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTITIA
DIPUTACION DE ALZUOLA
JUSTITIA - JUSTITIA DEPARTAMENTO

EAE-N NAZIOARTEKO BABESA ESKATU DUTEN PERTSONAK, 2021

Begirada honen bidez, nazioarteko babesari eta asiloari buruzko erkidegoko datuak aztertuko ditugu, eta, horrela, 2021eko otsailan argitaratu genuen 79. Begiradako informazioa eguneratuko dugu.

Barne Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, COVID-19ak eta horren ondorioz hartu diren ezohiko neurriek eragina izan dute EAera iristen diren asilo-eskatzailen kopuruan. Hala eta guztiz ere, 1.724 asilo-eskabide erregistratu ziren Euskadin 2021ean.

1 Nazioarteko babesak EAEn

Barne Ministerioak argitaratutako behin-behineko datuen arabera, 1.724 asilo-eskabide erregistratu zituen Euskal Autonomia Erkidegoak –EAE hemendik aurrera– 2021ean; hau da, aurreko urteetan baino gutxiago. Hala, 1. grafikoan ikusten den bezala, Euskadik jasotzen dituen asilo-eskabideen kopurua aldatu egiten da urtez urte, eta hiru fase ere bereiz daitezke.


Hasiera batean (2006-2014), nahiko txikia izan zen asiloa eskatuz EAera iritsi ziren pertsonen kopurua: 100 eskabide inguru izaten ziren urtean.

Joera hori aldatzen hasi zen 2015etik aurrera, eta erregistratutako asilo-eskabideen kopurua hazten. Hazkunde hori apal samarra izan zen hasieran, eta askoz nabarmenagoa ondorengo urteetan. Hain zuzen ere, 4.827 asilo-eskabide erregistratu ziren 2019an, orain arteko kopururik handiena.

Migrazio-fluxuek markatutako joerarekin bat eginez, ikusten dugu erregistratutako eskabideen kopurua jaisten hasi zela COVID-19aren testuinguruan. 2019 eta 2020 artean, jasotako asilo-eskabideen kopurua % 36,1 murriztu zen. Gelditu beharrean, jaitsiera hori mantendu egin da azken urtean: 2020an, 3.085 eskabide izan ziren, eta 2021ean, 1.724, % 44,1 gutxiago, beraz.

1. grafikoa

Asilo-eskabideen bilakaera EAEn, absolutuak, 2006-2021



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.


Asilo-eskabide horiek lurralde historikoen artean izandako banaketari dagokionez —2. grafikoa—, Bizkaia da 2021ean eskabide gehien jaso dituen lurraldea: 879 eskabide. Hau da, urtean zehar EAEn erregistratutako eskabide guztien % 51 han izan dira. Bizkaiaren ondoren, Gipuzkoak erregistratu ditu gehien, 549 eskabide (guztien % 31,8); eta, azkenik, Arabak, 296 eskabide (% 17,2).

Sexuari dagokionez —3. grafikoa —, 2020an¹ EAEn asiloa eskatu zuten gizonen kopurua (% 51,5) emakumeena (% 48,5) baino pixka bat handiagoa izan zen. Beraz, tasa hori erkidegoan errolatutako atzerritar jatorriko biztanleriaren tasaren aldean zertxobait ezberdina dela ikus dezakegu. Izan ere, asilo-eskatzaileen kolektiboa apur bat maskulinizatuta dagoen arren, migratutako guztizko biztanlerian emakumeak (% 52,5) gehiago dira gizonak (% 47,5) baino.

¹ Barne Ministerioak argitaratutako behin-behineko datuek 2021ean guztira erregistratutako eskabideak bakarrik jasotzen dituzte. Ondorioz, 2020ko behin betiko datuak erabili dira gainerakoan, horiek asilo-eskatzaileen sexuari, geografia-eremuari eta jatorrizko herrialdeari buruzko informazio gehigarria ematen baitute.

2. grafikoa


Asilo-eskabideak lurralde historikoetan, absolutuak, 2021



Iturria: Geuk eginda, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

3. grafikoa


Asilo-eskatzaileen eta EAEn errolatutako atzerritar jatorriko pertsonen banaketa, sexuaren arabera, 2020



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren eta INEren datuak oinarri hartuta.

4. grafikoa

Asilo-eskabideen banaketa, jatorrizko eremuaren arabera, %, 2020



Eskabide horien jatorriari dagokionez —4. grafikoa—, ikus dezakegu EAEn asiloa eskatzen duten pertsona gehienak Latinoamerikatik datozela. Zehazki, 2020an asiloa eskatu zuten pertsona guztien % 91,5 Latinoamerikako herrialderen batean jaiotakoak ziren.

Latinoamerikako asilo-eskatzaileen datuetatik oso urrun, asiloa eskatu zuten pertsonen % 3,1 Saharaz hegoaldeko Afrikan jaio ziren, % 2,4 Europar Batasunetik kanpoko Europako herrialderen batean, % 1,7 Magreben eta % 1,3 Asian.

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Eremu geografiko bakoitzak urtez urte izan duen banaketari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu eremu horien pisuak aldaketa eta eboluzio bat izan duela urteek aurrera egin ahala –1. taula–. 2006tik 2014ra, asiloa eskatzera EAera iristen ziren pertsona gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batean jaiotakoak ziren.

2015etik aurrera, joera hori aldatzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka. Alde batetik, Euskadin asiloa eskatzen zuten Europar Batasunetik kanpoko Europako herrialdeetan jaiotako pertsonen kopuruak gora egin zuen. Aldaketa hori, gainera, Latinoamerikan jaiotako pertsonen eskabideen gorakadarekin batera gertatu zen.

Urteak igaro ahala, latinoamerikar jatorriko pertsonen gorakada horrek, lehen urteetan hain arina izan zenak, indarra hartu du, eta jatorrizko eremu nagusia bihurtu da Latinoamerika. Lau urteren buruan, nabarmen hazi zen EAEn babes bila ari ziren Latinoamerikako pertsonen kopurua: 28 eskabide izan ziren 2015ean, eta 4.000 baino gehiago 2019an. COVID-19aren eta hark mugikortasunean duen eraginaren ondorioz, asiloa eskatu zuten latinoamerikar jatorriko pertsonen kopurua murriztu egin zen 2020an: 2.822 izan ziren, aurreko urtean baino 1.293 gutxiago.

1. taula

Asilo-eskabideen bilakaera, jatorrizko eremuaren arabera, absolutuak, 2006-2020

	EBz kanpoko Europa	Magreb	Saharaz hegoaldeko Afrika	Latinoamerika	Asia	Gainerakoak	Guztira
2006	5	12	48	10	4	1	80
2007	2	11	69	6	4	-	92
2008	3	7	84	6	8	-	108
2009	8	4	88	7	10	-	117
2010	7	2	60	2	8	1	80
2011	4	7	80	8	15	2	116
2012	5	5	44	5	19	-	78
2013	-	1	46	4	11	-	62
2014	7	4	54	9	25	-	99
2015	42	3	61	28	29	-	163
2016	77	19	108	239	57	-	500
2017	124	20	113	650	60	3	970
2018	150	23	126	1.260	36	1	1.596
2019	310	71	255	4.115	72	4	4.827
2020	73	52	95	2.822	39	4	3.085

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Euskadiko asilo-eskatzailen jatorrizko herrialdeei erreparatuz gero –2. taula–, ikusten da hamarretik ia zortzi Kolonbiatik (1.157), Venezuelatik (804) edo Nikaraguitik (464) etorritakoak zirela 2020an. Horiekin batera, Honduras (169 pertsona) eta Peru (112 pertsona) izan ziren jatorri ugariak.

Horrek aldaketa bat erakusten du 79. Begiradarekin alderatuta; izan ere, 2019. urtean, Georgia zen bosgarren herrialde nagusia aurkeztutako eskabide kopuruari dagokionez, eta 2020an ez da agertzen asilo-eskatzailen jatorrizko lehen hamar herrialdeen artean.

Lurralde historikoen arabera, Kolonbia, Venezuela eta Nikaragua izan dira jatorrizko herrialde nagusiak Bizkaian eta Gipuzkoan; Araban, berriz, Kolonbiari (% 47) eta Venezuelari (% 21,2) Peru (% 6,7) gehitu zaie.

2. taula

Asilo-eskabideak lurralde historikoetan, jatorrizko herrialdearen arabera, absolutuak eta % bertikalak, 2020

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa					
	K	%	K	%	K	%	K	%				
1	Kolonbia	1.157	37,5	Kolonbia	317	47,0	Kolonbia	637	36,0	Kolonbia	203	31,5
2	Venezuela	804	26,1	Venezuela	143	21,2	Venezuela	561	31,7	Nikaragua	183	28,4
3	Nikaragua	464	15,0	Peru	45	6,7	Nikaragua	259	14,7	Venezuela	100	15,5
4	Honduras	169	5,5	Nigeria	28	4,2	Honduras	88	5,0	Honduras	63	9,8
5	Peru	112	3,6	Nikaragua	22	3,3	Peru	54	3,1	Ukraina	19	3,0
6	Nigeria	49	1,6	Honduras	18	2,7	Kuba	23	1,3	Peru	13	2,0
7	Ukraina	39	1,3	Maroko	12	1,8	Nigeria	20	1,1	Pakistan	9	1,4
8	El Salvador	34	1,1	El Salvador	11	1,6	El Salvador	19	1,1	Maroko	7	1,1
9	Maroko	29	0,9	Pakistan	11	1,6	Maroko	10	0,6	Aljeria	5	0,8
10	Kuba	27	0,9	Ukraina	11	1,6	Argentina	9	0,5	Errusia	5	0,8
	Gainerakoak	201	6,5	Gainerakoak	56	8,3	Gainerakoak	87	4,9	Gainerakoak	37	5,7
	Guztira	3.085	100,0	Guztira	674	100,0	Guztira	1.767	100,0	Guztira	644	100,0

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Asilo-eskatzaileren jatorrizko herrialde nagusiekin jarraituz, eskabideek azken urteetan izan duten bilakaera erakusten du 5. grafikoak. Ikus dezakegun bezala, eta Peruren salbuespenarekin, jatorri bakoitzetik iritsitako asilo-eskatzaileren kopurua murriztu egin da COVID-19aren testuinguruan.


Irteera horien arrazoiei dagokienez, kolonbiar jatorrikoen asilo-eskabideen gehikuntza herrialdeak azkenaldi honetan bizi izan duen indarkeriaren gorakadari egotz diezaiokegu (CEAR, 2021). Urte gutxi batzuetako tartean, erkidegoan asiloa eskatzen duten pertsonen kopurua asko hazi dela ikus dezakegu: 2014an, 2 pertsona izan ziren, eta 2020an, 1.100 baino gehiago.

Venezuelaren eta Nikaraguaren kasuan, badirudi bi herrialdeek duela urte batzuetatik bizi duten krisi politikoarekin dutela lotura asilo-eskabideek. Bestalde, CEAREk dioenez, Hondurastik irteten direnen gorakadak marek eta talde antolatuek eragindako indarkeriarekin duela zerikusia ematen du.

Azkenik, Peruri dagokionez, herrialdeak urte batzuk daramatza eskandalu politiko bat bestearen atzetik izaten, eta, horrekin batera, adierazpen-askatasunaren aurkako erasoak areagotu egin dira, baita giza eskubideen defendatzaileen eta ingurumen-ekintzaileen aurkako erasoak ere (Human Rights Watch, 2020).

5. grafikoa

Jatorri nagusietako asilo-eskabideen bilakaera EAEn, absolutuak, 2013-2020



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.


Eskabideen ebazpenari dagokionez –6. grafikoa–, 2020an Espainian² aurkeztutako eskabide gehienak ukatu egin ziren. Jatorriaren arabera, nikaraguar jatorriko pertsonak inskribatutako espedienteen % 73,6ri eman zitzaizkien ezezkoa, Hondurasko herritarrek aurkeztutako % 88,1i, eta Perukoek (% 97) eta Kolonbiakoek (% 98) egindako eskabide ia guztiei.

Hala, Nikaraguako jatorriko asilo-eskatzailen % 26,3k soilik lortu zuten errefuxiatu-estatutua³. Nikaraguakoekin batera, hondurastar jatorrikoen kasua ere nabarmendu behar da: % 11,7k aldeko ebazpena jaso zuten eskabideetan. Bi jatorri horietatik harago, Peruko eta Kolonbiako pertsonen % 2,6 eta % 1,6 bakarrik aitortu ziren errefuxiatutzat, hurrenez hurren.

Kasu berezia da Venezuelarena; izan ere, 2020an asiloa eskatu zuten pertsona guztien % 97,9k arrazoi humanitarioengatik lortu zuten egoitza-baimena, eta halakorik ez da gertatzen gainerako jatorriak dituztenen artean. 79. Begiradan aipatu genuen bezala, Asilo eta Babeserako Ministerio-arteke Batzordeak –CIAR– 2019ko martxoaren 5ean aurkeztutako proposamenari zor zaio hori; izan ere, proposamen horren bidez, nazioarteko babes-eskubideak ukatu zaizkien Venezuelako nazionalitateko pertsona guztiei arrazoi humanitarioengatik egoitza-baimena ematea sustatu zuen (CIAR, 2019).

² Autonomia-erkidegoen araberako daturik ez dagoenez, ukatutako eta onartutako eskabideei buruzko datuak Espainian erregistratutako asilo-eskabide guztiei dagozkie, EAEn dauden jatorri nagusiak kontuan hartuta.

6. grafikoa
Espainian ukatutako eta onartutako asilo-eskabideak, jatorriaren arabera, %, 2020



Iturria: Geuk egina, CEAR eta Eurostaten datuak oinarri hartuta.

³ Asilo-eskubideari eta nazioarteko babes-mekanismoari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 2021eko otsaileko “79. Begirada: EAEn nazioarteko babes eskatu duten pertsonak”. Zehazki, lehen atalak mekanismo nagusien eta haien ezaugarrien laburpena egiten du. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan79eus.pdf>


2 Euskal herritarren pertzepzioa asilo eskatu duten pertsonetara

Ikuspegiren 2021eko Barometroaren datuek –7. grafikoa– erakusten dutenez, euskal biztanleriaren gehiengoak ondo ikusten du asilo-eskatzaileri laguntza ematea. Zehazki, EAEnko biztanleen % 35,2k adierazi zuten ados zeudela pertsona horiei inolako mugarik gabe harrera egitearekin; % 29,8k esan zuten pertsona horiek jazartzen ari direla egiaztatzen bada egin behar zaiela harrera; eta % 21ek esan zuten ados zeudela haiek hartzearekin, baina kuoten arabera banaketa eginez. EAEnko biztanleen % 4,5 soilik daude asilo-eskatzaileri hartzearen aurka.

Euskal biztanleriaren pertzepzioen bilakaerari erreparatu badiogu, 8. grafikoa ikus daiteke 2008tik euskal biztanleriaren % 70ek baino gehiagok adierazi dutela errefuxiatuak eta asilo-eskatzaileri hartzearen alde daudela. 2021ean, ehuneko hori jaitsi egin da aurreko urteko datuekin alderatuta –% 94,9 2020an, orain arteko daturik altuena–, baina oraindik ere nabarmen gaitzen du % 80ko muga.


7. grafikoa

Euskal herritarren pertzepzioa asilo-eskatzaileri harrera egiteari buruz, %, 2021



8. grafikoa

Asilo-eskatzaileri harrera egitearen alde dauden euskal herritarren portzentajearen bilakaera, %, 2008-2021



Iturria: Ikuspegi.

Iturria: Ikuspegi.

Ondorioak

- 2021ean, Euskadin, 1.724 asilo-eskabide erregistratu ziren guztira. Urtebete lehenago hasitako beheranzko joerari eusten zaio, eta, beraz, eskabide kopuruak behera egiten jarraitzen du pandemiaren ondorioz.
- Bizkaia da asilo-eskabide gehien jasotzen dituen lurralde historikoa —eskaera guztien % 51—, eta ondoren datoz Gipuzkoa (% 31,8) eta Araba (% 17,2).
- Sexuari dagokionez, asilo-eskatzailen kolektiboa apur bat maskulinizatuta dago (% 51,5), eta horrek ezberdintasun bat erakusten du erkidegoan erroldatutako atzerritar jatorriko pertsona guztien kopuruarekin alderatuta (% 52,5 emakumeak).
- 2020an aurkeztutako eskabide gehienak (% 91,5) latinoamerikar jatorriko herritarrek eginak izan ziren. Horien artean gehienak Kolonbia, Venezuela, Nikaragua, Honduras eta Peruko herritarrek eginak ziren.
- Asiloa eskatu zuten Venezuelako herritarrak guztiek bizileku-baimena lortu zuten arrazoi humanitarioengatik. Gainerako jatorri negusietako herritarrek egindako nazioarteko babes-eskaera gehienak ukatuak izan ziren.
- Euskal gizarteak jarrera irekia eta solidarioa erakusten du asiloa eskatzen duten pertsonetikiko (% 86 harreraren alde dago).

EAE 2021	1.724 asilo-eskabide	2020an baino % 44,1 gutxiago
---------------------	--------------------------------	---

2021ean % 91,5 jatorri latinoamerikarra	Jatorri nagusiak Kolonbia, Venezuela eta Nikaragua
---	---

Ebazpenak	
Jatorri nagusietako eskabide gehienetan ezezko erantzuna	Salbuespena: Venezuela baimenen % 97,9 arrazoi humanitarioengatik
Biztanleriaren % 86 harreraren alde dago	

Bibliografia

- CEAR. (2021). *INFORME 2021: Las personas refugiadas en España y Europa*. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2021/06/Informe-Anual-CEAR-2021.pdf>
- Comisión Interministerial de Asilo y Refugio (2019). *NOTA SOBRE LA PROPUESTA DE CONCESIÓN DE UNA AUTORIZACIÓN DE RESIDENCIA POR RAZONES HUMANITARIAS 5 de marzo de 2019*. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2019/03/OAR-Nota-RRHH-febrero.pdf>
- Human Rights Watch. (2020). *HRW: Informe Mundial 2020. Resumen de país: Perú, eventos 2019*. <https://www.refworld.org/es/docid/5e46e2274.html>